

# Karkara

*karkara.eus*

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria • 2018ko abenduaren 21a • 401. zenbakia



## Musika eguneroko bizigai

Ibai Marin, Intza Unanue eta Julen Alonso. 2018an proiektu pertsonalak martxan jarri dituzten hiru gazteekin juntatu gara.



**Joseba**  
AROTZEGIA • CARPINTERIA

687 683 427  
josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- AROTZEGIA OROKORREAN

**Villar Autobusak**  
Bidai nazionalak eta nazioartekoak  
83 eserleku



Autocares Villar  
Orio (Gipuzkoa)  
Tel: 609402537  
Email: autocaresvillar@yahoo.es  
www.autocaresvillar.com

**ZINKU**  
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatutak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua  
kompromisorik gabe*

Ander Zinkunegi  
667 740 279



**Gale Bask S.L.**

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturginitza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia, 2 - behea (20810 Orio)  
Tel./Fax: 943 134 717  
Mugikorak: 638 610 343 / 638 610 349  
galebask@hotmail.com

*Mada eta ongarriak*  
*gandak goiza zaharkit!*



Garbiso Arroyo  
*Menda plaza, 5 - Orio - 635 706 265*

**garay**  
manufacture

**SUKALDEAK**

www.garay.eus

*1987tik sukalde altzarietan lanar.*

HITZORDUA ESKATU ETA  
LANTEGIRA HURBILDU  
Olabidea aldea 1  
(Erratiberi Industrialdea)  
20.800 Zarautz  
**943 13 31 09**

**XS** arkitektura

obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
eraikinen mantentua

Kale Nagusia, 2 - behea (20810 Orio)  
Tel./Fax: 943 134 717  
Mugikorak: 638 610 343 / 638 610 349  
galebask@hotmail.com

www.xsarkitektura.com



*egin zaitez laguntzailo*

**Karkara**




**Sagasti**  
LEIHOAK

Tel: 943 13 00 77 - Fax: 943 53 71 30  
sagasti@sagastileihoak.com  
Arrieta Kalea, 63  
20810 Orio

Kalitatezko materialak  
PVC eta aluminioa - Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua  
www.sagastileihoak.com

**IZARRA ELEKTROGAILUAK ORION**

*Eskaintzak*

*Urte Berri On*  
*endo espate*  
*festak*



Eusko Gudari, 44 - Tel: 943 83 38 81 - 20810 Orio (Gipuzkoa)  
izarraelectrodomesticos@gmail.com

401

## Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27

karkara@karkara.com  
www.karkara.eus

### Editorea

Karkara taldea  
kultur elkartea

**Erredaktore burua**  
Ainara Lasa

### Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran  
Olatz Artola  
Iñigo Exposito  
Iñigo Gaiton  
Jon Garate  
Miriam Garcia  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzkudun

### Publizitatea

Sonia Albizu

### Ale honetako kolaboratzaileak

Eñaut Bravo  
Xabier Etxeberria  
Libe Garmendia  
Iñaki Iturain  
Joseba Oliden  
Elene Tamayo

### Diseinua

Saioa Perona

### Banatzzaileak

Manex Dorransoro (Orioko)  
Endika Ruiz (Orioko)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Antza S.A.L. (Lasarte-Oria)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berriaren daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

**TOKIKOM**



### LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Joseba Olideni jarri dio puntua Zigor Esoainek: *Bertsotan omen zinen herriko promesa* Hurrengoari ere jarri dio puntua.

## PUNTUA JARRITA

**JOSEBA OLIDEN** (DOINUA: HAIZEAK EKARRI DU)

**1**

### Bertsotan omen zinen herriko promesa

hala ere ni ulertzen ez zegoen erreza. Lasarten behin egin nuen saio aldrebesa, graziak despistaturik zegoen jueza.

**2**

Garai hartan guztiek zuten ahots fina, baina ni ordurako gizona egina... Hura ez zen niretzat izan atsegina eta bertso paperetan egin behar ahalegina.

**3**

Goraipatu nahi nuke bertsoen bilkura, gure hizkuntzarentzat luxuzko aingura. Norbanakoak dugu hala ere ardura, gehiago zaindu behar genuke kultura.



Bertsotan baino ibilbide oparoagoa izan zuen Olidenek eskubaloiean.

### Hurrengo bertsolaria:

Amagoia Iribar

### Puntua:

Zer ikuspegi dago barraren atzetik?

## Aurten ere kabalgata

Denok dakigun bezala, lehengo urtean Talaimendik agur bero bat eman zion kabalgatari, hainbat urtean egin ondoren, Errege bezperan egin izan den ekintza berezia bertan behera uztea erabaki zuen. Aurten, hori dela eta herriko talde batek lekukoa hartuko du kabalgata bizirik mantentzeko asmoarekin.

Esaten hasi naizen bezala kabalgata beste era batera antolatuko da, hau da, herriko guraso talde batek emango dio bukaera Errege bezperari aurtengoan...

Egoeraren inguruan pentsatu ondoren, ohartu naiz herritarron partetik benetan eskertzeko zerbait dela, zer izango litzateke Errege bezpera kabalgatari gabe? Edo, zer izango litzateke oraingo haurrentzat kabalgata gabeko bezpera bat?

Ziur nago denoi txiki txikitatik benetan gustatu zaigun zerbait izan dela kabalgataren momentua, irrika hori nabaritzea, liluratuta egotea. Ez dago dudarik, guk, herritarrok ekitaldi hau hemendik aurrera jarraitzea nahi badugu gure partetik ere jarri beharko dugula. • **Nerea Uranga**

## Urteko batzarra

Zaharren Babeslekuak urteko batzarra ospatuko du urtarrilaren 16an, asteazkenez.

Lehenengo deialdia arratsaldeko 16:15etan izango da, eta bigarrena, 17:00etan. Kultur etxean egingo da urteko batzarra.

Gai zerrenda ondorengoa izango da: presidentearen agurra; 2018ko urtarrilaren 10ean egindako azken Batzar Nagusiaren akta irakurri eta, egoki bada, onartzea; Alkatearen hitzak; ekitaldi ekonomikoaren itxiera eta 2018. urteko balantzea; 2018ko jardueraren memoria; zuzendaritza batzordeko kideak berritzea; eskaerak eta galderak.

Babeslekuko zuzendaritzak ondorengo oharra helarazi nahi du: 2019ko kuotaren ordainketa ur-

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

tarrilaren 21etik 25era bitartean egingo da (biak barne), 16:00etatik 18:00etara, Zaharren Babeslekuan

Urteko batzarrean parte hartzera gonbidatzen ditugu herritarrak, oso garrantzitsua baita denon artean erabakiak hartu eta Zaharren Babeslekuko etorkizuna bermatzea. •

**Txomin Iribar.** Orioko Zaharren Babeslekuko presidentea

## Orioko Udaleri

Anoetako obrak direla eta, han soberan geratu diren aulkiak eskaini zizkiguten Realetik orain asko ez dela. Orioko Futbol Taldeko zuzendaritzari interesgarri egin zitzaion eskaintza, batez ere, aulki horiek bizkarraldea zutelako, eta Mendibel-tzekoek ez. Gauzak horrela, lan talde bat prest agertu zen lan hori egiteko, alegia, aulkiak aldatzeko. Aulkiak jartzeko behar zen materiala erostea zen kontua, eta horretarako aurrekontu bat egin genuen -1000 € gutxi gorabehera- eta Udaleri aurkeztu genion, besteak beste, berea delako Mendibeltz zelaia.

Ba, gure harridurarako, Udalak hauxe erantzun zigun: Ardura Orioko Futbol taldearena zela, Udalak ez zuela ezertan lagunduko, ez zuelako beharrezkotzat ikusten aldaketa. Ez zuela galaraziko, baina aldaketa gure

ardurapean eta gure gain egin beharko zela.

Erantzun honen aurrean zera argitu nahiko nuke: Bat da ezetza jasotzea, eta argumentu arrazoizkoak eman ezker, gu hori onartzeko prest geunden eta egongo gara; baina beste bat da Udalak ardura gurea dela esatea eta erantzukizunik hartu nahi ez izatea. Gurea bezalako elkarteetan jendeak bere borondatez, musu-truk, egiten du lana, eta horrela erantzutea lotsagarria iruditu zaigu.

Elkarteetako jendea zaindu beharrean, disgustuak besterik ez ditugu jasotzen askotan Udalaren partetik, eta horrela ez dago herri bizi bat osatzerik. Errespetu handiagoa merezi dugu.

• **Harkaitz Agirre Manterola.**

Orioko Futbol Taldeko presidentea

## JAIOTAKOAK

- Nora Arruti El Ouali, azaroaren 6an..
- Simohamed Laassiri, azaroaren 13an.
- Enaitz Murua Zulaika, azaroaren 20an.
- Libe Landa Lizarralde, azaroaren 27an.
- Nikole Gozategi Manterola, abenduaren 4an
- Aaron Nicolas Portero Lopez, abenduaren 4an.
- Irai Eizagirre Mitxelena, abenduaren 14an.
- Lara Mancisidor Tena, abenduaren 18an.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

**943 83 15 27**



# Errigorako kaxen irabazleak: Joxe Irure eta Rafael Manterola



Abenduaren 19an egin genuen erredakzioan zozketa: Joxe Irure eta Rafa Manteolari tokatu zaizkie Errigorako produktuen bi kaxak, zorionak!  
Zozketa **KARKARA**ko laguntzaile diren lagunen artean egin da.

Halako zozketetan parte hartu nahi baduzu, edo beste hainbat abantailez gozatu, egin zaitez **KARKARA**ko

laguntzaile. Nola?  
-karkara@karkara.com e-postara idatziz.  
- 688 857 305 zenbakira Whatsapa bidaliz.  
-943 83 15 27 telefonora deituz.

30 urte beteko ditugun ikasurte honetan, egin ditzagun 31a eskutik!

# Karkara<sup>30</sup>urte

karkararens

Egin ditzagun

# 31 ESKUTIK!

## EGIN ZAITEZ LAGUNTZAILE

Tel: 943 831 527

E-posta: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com)

688 857 305

**Karkarako kide guztion partez**

# EGUBERRI ON!





Frontoiko harmailak goraino bete ziren sanikolasetan. KARKARA



Julen Alonsoren lehen diskoko portada. JA



Taloak eta txistorra, Santo Tomas eguneko bereizgarriak. KARKARA

# Joan da aurtengoa ere!

“2018. urtea oparoa izan da herriko sortzaileen lanei dagokionez”

Astebete aurreratu dugun urteko azken zenbaki honetan, Euskaraldiari erreferentzia eginez hasiko dugu kronika; guretzat urteko bereizgarri nagusietako bat izan da!

Abenduraren 3an bukatu zen euskararen erabilera indartzeko xede izan duen ariketa, eta antolatzaileek balorazio oso ona egin dute. Euskal Herriko parte hartze datuak onak izan dira, eta Oriokoak, zehazki, mundialak! Ez dakigu Euskaraldiaren eragina zenbatekoa izango den, baina Arrate Illarok sare sozialetan zabaldu berri duenez, Budapesten ere topatu dituzte ahobizi eta belarriprest bana. Ez da makala, gero!

Euskaraldia bukatu eta bi egunera eman zitzaien hasiera sanikolasei. Kalejira, kontzertu, dantza eta algara artean, frontoiko argazkiak ilusio berezia egin zigun: aspaldi ez bezala bete ziren harmailak Titin III ikusteko! Trizioko pilotariak sasoi betean jarraitzen du 49 urterekin, eta ezker gantxoak oraindik zorrotz-zorrotza duela erakutsi zien zale oriotarrei. Hala ere, ez zuen Merinorekin batera jokaturako partida irabazterik izan; 20-22 emaitzarekin irabazi zuten Urbieta II eta Zabalak.

Beno, eta ohartzerako, txistorra usaina iritsi zaigu erredakziora; gaur Santo Tomas, eta datorren astean, Gabonak! Ez al zaizue udatik urte garai honetarako denbora tartea gero eta laburragoa egiten? Guri, behintzat, bai... Edadea izango da! 2018. urtea oparoa izan da herriko sortzaileen lanei dagokionez, eta gure aldetik, diskoak edo liburuak oparitzeko proposamena egin nahi dizuegu; besteak beste, *tallarekin* bete-betean asmatzeko modurik praktikoena delako...

Urte berri on guztioi!

KARKARIÑOAK



# Nola bizi dituzu Gabonak Orion?



“Nikaraguan kaleko festa da nagusi; ea hemen”

**N**ire herrialdean Gabonak kalean igarotzen ditugu. Auzo desberdinetan musika jartzen dute eta familia guztiak kale-ra irteten dira, dantzara eta su artifizialez goatzera. Urteko oporraldi onenak dira niretzat.

Oso bereziak dira festa hauek Nikaraguan; Gabon zahar gauean panpinak erretzen dira, tradizioa da. Familia guztia biltzen gara etxean. Jendea oso gertukoa da nire herrialdean, eta ospakizunak partekatzea asko gustatzen zaigu.

10 urte daramatzat Euskal Herrian, 10 hilabete Orion. Esan didate herrian jarduera asko egiten direla. Ea hala den.

**Ladi Betanco**



“Askok aldatu dira Gabonak nire gazte garaitik”

**G**abonak ikaragarri aldatu dira gure herrian. Lehen familiarekin gehiago juntatzen ginen, elkarrekin pasatzen genituen festak. Orain, ordea, bakoitzak bere etxean pasatzen ditu. Gurean, beti elkartu gara haurrak, gurasoak, lehengusuak... familia osoa!

Gogoan dut 13 urterekin aitarekin arrantza egitera ateratzen nintzela eta harrapatutakoa Gabon zahar gauean gustura asko jaten genuela. Kantuan eta bertsotan ere aritzen ginen, edanarekin pozten ginenean. Une bikainak ordukoak, baina aurtun ere gozatuko dugu!

**Bixente Genoba**



“Kubatik nator. Lehen Gabonak ditut hemen”

**L**ehengusua Orion bizi da eta oporretan nago herrian. Haban bizi naiz eta niretzat hau zeharo desberdina da. Hilabete batez izan naiz Orion eta asko gustatzen zait hemengo giroa.

Egia esan, Kuban ez dira Gabonak ospatzen. Ez ditugu kaleak argiztatzeko eta ez da ospakizun berezirik egiten. Beraz, gogotsu nago Orion festa hauetaz gozatzeko. Nire lehengusua, senarra eta beren seme-alabekin afalduko dut Gabon zahar gauean.

Esan didate ekitaldi mordo dagoela, eta Gabon zahar gauean Olentzero etortzen dela. Ezagutzeko irrikaz nago!

**Patricia Rodriguez**



**azkue**  
**karrozeria**

Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com



**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidaia S.L.*



Autobus litera eta  
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
 Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80 - Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

**urbide**  
 iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bitzkaia Kalea, 4  
 20800 Zarautz  
 943 890 069  
 urbideiturginak@gmail.com  
 www.urbide.es

**Zaragueta**  
 Herri Eskola *Orlo*

telefonoa: 943 89 40 52  
 e-mail: 012137aa@hezkontza.net

**Azkue**



Tf: 943 130 438

**Azkue**

**fontana**  
 iturgintza

Plaza Endala Nº1, 20810 - Orlo  
 fontana-ju@hotmail.es  
 943 539 888 • 661 262 828

ITURGINTZA - GASA - BEROGINTZA

zerbitzu teknikoak  
 C 24 ordu

**MENDIZABAL**  
**AROTZTEGIA**  
*Nearriko armariek eta eguraldeak*

943 831 175 Altxerri bideko  
 645 708 491 Bati-Aloi etxeko  
 mendibarrozi.net 20810 Aia-Orlo

**Katu**  
**MORIA**

ORLO-EGITZA ZILINDRO

ESTROPALARI, 10  
 20810 ORLO  
 tel. 943 11 66 99

LARRIAGIAR  
 668 80 11 29

www.katumoria.com

**ELEKTRIZITATEA**  
*Andr Expósito*

943 831 774  
 600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com

**GARMENDIA**

HIGIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
 Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941  
 informacion@garmendiagestion.com

**Imanol Illarramendi**  
 Aia (Gipuzkoa)

**KORTABERRI**  
 arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com ☎ 665 70 33 47

**IGLESIAS**  
**SARRILAGILEAK**

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
 637 723 308  
 iglesiascorrajesarrilagileak.es  
**ZOBIO ORIO**

- ATEAK INKITZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALOKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

**PERTSIANAK**  
**A K O M A N Z**

Aluminio, PVC  
 Venezianak  
 Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**Desatascos**  
**LASTER**

688 886 536  
 desatascos@desatascoslaster.com  
 www.desatascoslaster.com

24 ORDU

Hodi-libraketak  
 Garbiketarak presio handiko urarekin  
 Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa  
 Hodien, isurbiden eta estoldieriaren ikuskatzea, kamerarekin  
 Uholde urak ateratzea  
 Ezkutuko kurbatzen detekzioa

Sagar erreka 21-A • 20590 Sanluzar  
 Abaramendi bide 3 • 20810 Orlo  
 Tel: 943 751 431

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**



Pelotari S, Orlo  
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**





# Gabon osasuntsuak



Libe Garmendia

**Beste gomendio bat da otordu berezietara gose handiegiarekin ez iristea. Modu honetara, lasaiago jateko aukera izango duzu.**

**G**abonetan elikadura ohitura osasungarriak jarraitzea ezinezkoa dirudien arren, gomendio batzuk jarraituz otordu horiez goza daiteke oporraldiak iraun bitartean.

Gogoratu Gabonetako ospakizunak otordu gutxi batzuk direla; beraz, gainontzeko otorduetan konpentsazioari uko egin eta eguneroko elikagai osasungarriak aukeratzea gomendatuko nieke herritarrei. Horretarako, besteak beste, aurreko egunetako soberakinak ez jatea izango da gakoa.

Beste gomendioetako bat otordu berezi horietara gose handiegiarekin ez iristea izango litzateke. Modu honetara, lasaiago jateko aukera izango duzu, sarri mahai gaina janariz josita ikusten dugunean sartzen den antsietate hori sahiesteko.

Lehenetsi elikagai osasungarriak. Dena dela, oso gustuko dituzun janariak egokienak izan ez arren, kantitate txikian jan ditzakezu.

Horrela ere, janariak gozatu daiteke. Zure asetasun mailari ere erreparatu, gogoratu gehiegi jateak zein ondorio sortzen dituen.

Eta azkenik, egarria duzunean ura edan, alkoholari tarte txikiagoa utziaz.

Gabonetan elikadura oparora egitea etxe gehienetako usadioa da eta hori aldatzea zaila badirudi ere, ohitura zaharrak gaur egunera egokitu daitezke.

Gehiegikeriak alde batera utzi, eta benetan garrantzi handiena duenari heldu beharko genioke; maite ditugunekin elkartzeara.



Ainara Lasa

## 'Hamazortzikada'

**H**aemino eta Cansado humoregile mitikoek *Ilustres Ignorantes* telebista saioan 2000ko hamarkadari buruzko hausnarketa egiteari uko egin zioten pasa den asteko programan. Javier Coronas aurkezlea zur eta lur utzi zuten biek. Beren argudioa: *hamazortzikada* goitizena hobe zetorkiola hamarkada horri, 2000-2018 aldia mamitsuagoa izan dela aldarrikatuz.

Berrespen horrek hausnarketa bat egitera eraman ninduen: 18 urte pasa dira, bai. *Hamazortzikada* honetan, *hipster*, *millenial* edo *nini* terminoak barneratu ditugu gizartean, gutxiespen kutsu pozoitsu batekin gehienetan.

Amaitzear den urte honetan 2000.urtean jaiotakoek hamazortzi urte bete dituzte. Zer esan nahi du horrek? Gidabaimena ateratzeko gutxieneko adina eskuratu dutela, unibertsitatera, lanbide heziketara edo lan mundura sartzekoa...

Baina, batez ere, hauteskunderen boza emango dute aurrenekoz. *Brexita* dela, atzerrian Vox bezalako eskuin muturreko alderdiak gailenduz doazela... Zeren ondorio izan daitezke gertaera horiek?

Nork edo nork —batez ere politikariak— erreparatu al du, guk geuk *nini*-tzat jotzen ditugun horien kezka eta nahietan, hauteskunde kanpainak taxutu eta erabakiak hartzeko garaian?

Behar bada, orain artean besteok izan gara, eta gara, *ignorante ilustratuak*; eta ez berak.



# Katxiña erretegiak ateak itxiko ditu

Ia berrogei urtez zabalik egon ostean, **Katxiña erretegia abenduaren 22an, larunbatarekin, itxiko dute.** Maria Pilar Etxezarretak eta Mari Carmen Atxegak baieztatu digute notizia, jatetxearen ibilbideari errepassoa ematearekin batera.

TESTUA: I. GAITON

ARGAZKIAK: KARKARA, KATXIÑA

**J**atetxera iristeko bezeroek hilerri ondo-ondotik pasa beharko dute. Ez al duzue horrek jendea urrutiratuko duen beldurrik? Katxiña baserria jatetxe bihurtzeko lanak egin zituen arkitektoarena da esaldia. *Obra amaitutakoan bota zigun, ederra marka! Gu hemen jaiokak garenez, ohituta gaude kanposantua ondoan izatera, eta negozioa irekitzerako garaian, ez genuen hori kontuan izan, gogoratu du barrez Maria Pilarrek.*

Katxiña jatetxea 1979ko sanpedroetan ireki zuten, familia arteko bi senar-emazteren artean. *Joxek, nire senarra zenak, berotu zizkigun denoi buruak,* dio Mari Carmenek. Ia berrogei urtez zabalik egon ostean, erretiroa hartzeko garaia iritsi zaie.

## Hasierako urteak

Katxiña zabaldu arte, jabeek ez zuten aurretiazko esperimentziarik ostalaritza sektorean. Jatetxea ireki aurretik, ordea, ikasteko aukera izan zuten: Mari Carmen eta Joxe Aietera joaten ziren asteburutan, Jose Luis Mirallesen erretegian lan egiten ikastera. Maria Pilar eta Joxe Migel, berriz, Altxerrira. *Sukaldean sartu eta begira egoten nintzen, ikasten, eskuekin ezer ukitu gabe,* dio Maria Pilarrek.

Hasierako urteak latzak izan ziren bi elkarrizketatuen hitzetan. Katxiña ez dago herri erdigunean, eta erretegi-ko ateak zabaldukoan, jendea haraino joango ote zen galdetzen zieten elkarri. *Kezken eta lanean emandako ordu piloaren ondorioz, hezur eta azal geratu ginen,* dio Maria Pilarrek irribarrea galdu gabe. Lehen zazpi urtee-



Joxe Migel, M<sup>a</sup> Pilar, M<sup>a</sup> Carmen eta Joxe 1996. urtean. KATXIÑA



Mari Carmen, Maria Pilar eta Joxe Migel erretegiko jantokian, erreportajerako egindako argazkian. KARKARA

tan izan zituzten buruko minik handienak.

### Bakailaoa pil-pilean, lehen pizgarria

Denborarekin Katxiña parrilagatik egin da ezagun, baina hasieran, bakailaoa izan zen beren lehen berezitasuna, Juan Antonio Ercillak —Galarreta frontoiko gerentea izan zenak— emandako gomendio bati esker. *Kartan bakailaoa pil-pilean eskaintzeko aholkua eman zigun, inguruko herrietan ez zutelako halakorik ematen, zehaztu du Maria Pilarrek. Iruneko eta Bilboko bi jatetxe bisitatu genituen laurok, errezeta behar bezala egiten ikasteko.*

Bakailaoak jendea erakarri zuen jatetxera, eta Katxiñari beste erretegietatik bereizten lagundu zion. *Ordurako, Orio jatetxe askok parrilarekin ondo egiten zuten lan: Jose Mari, Xixario, Sarasua... Horien atzetik hasi ginen gu; bakailaoa eskaintzeaz gain, parrila ere berehala piztu genuen, azaldu du Mari Carmenek.*

Dena den, bada jatetxeko sukaldean erruz egin duten beste jaki bat. *Kroketak! kar kar kar Argiñanok pare bat aldiz esan du telebistan, hemengoak omen dira sekula jan dituen onenak!,* dio Maria Pilarrek.

### Lanerako bizi

Azken 39 urteetan, Maria Pilar eta Mari Carmen ez dira lanera joan; kontatzen dutenaren arabera, lanean bizi izan direla esan daiteke. Bere egin dute erretegiko mar-txa, eta hura izan dute —ostegunetan izan ezik— eguneroko bizitza. *Niri ez zait gogorra egin. Baserrikoa izanik, txikitatik ikusi dut zer den egunerokoan lanari emanda*

*bizitza, eta ohitu egiten zara, dio Maria Pilarrek. Hemen orduak sartu behar dira. Guk, behintzat, hala atera dugu negozioa aurrera. Ez dago sekreturik, berretsi du Mari Carmenek. Lanerako grina! kar kar kar... Pentsa, erretegia ez ixteagatik, familiako bataio eta ospakizunak beti astegunetan egin izan ditugu, gehitu du Maria Pilarrek.*

### Eman eta jaso

Bi elkarrizketatuen esanetan, Katxiñan ematen saiatu direna bizpahiru hitzetan azaldu daiteke: produktu ona —beti egoera onean— eta gertuko tratua. *Gaur egun, jatetxe askotan ematen dute ondo jaten, baina hemengo tratua ez dugu inon aurkitu.* Bilboko ohiko bezero batek esan zien hori duela gutxi jabeek, erretegia izan zen azken aldian.

Emateaz gain, urte hauetan guztietan jaso ere ikaragarri egin izan dutela diote bi koinatek: *Jendea jatetxera itzultzen dela ikustea da halako negozio batean gerta daki-zuken onena, dio Mari Carmenek. Bezero batzuk gaztetan hasi ziren hona etortzen, gero ezkondu egin ziren eta seme-alabak eduki zituzten, orain ume horiek ere hazi egin dira eta ezkontzera doaz... Jatetxean horren testigu zara, eta ederra da urtez urte jendearekin sortzen den harremana.*

Penatuta itxiko dute Katxiña erretegia jabeek, baina denboraren joana gelditu ezin dela-eta, sano-sano onartu dute erretiroa hartzeko garaia dutela.

Larunbatetik aurrera, auto gutxiago izango dituzte inguran bueltaka kanposatuko bizilagunek; parrilako usain goxorik, ordea, ez zaie gehiago iritsiko.



# Bide propioak jorratzen hasteko garaia

## IGAITON

Herriko hiru musikari elkarrizketatu ditugu: Julen Alonso, Intza Unanue eta Ibai Marin. Hirurek urteak daramatzate musika munduan murgilduta, eta aurten, **proiektu pertsonalak jarri dituzte martxan**. Estilo ezberdinak jorratu arren, hirurek musika dute bizigairik handiena.





# “Gustura nago diskoak izan duen harrerarekin”

## Julen Alonso

Musikaria

Julen Alonsok duela gutxi argitaratu du lehen diskoa, Durango Azoka baino lehentxeago: *Sutan dantzan*. Gogotsu dago abestiak zuzenean eskaintzen hasteko.



Julenek umetan ikasi zuen eskusoinua jotzen, eta 6 urte zituen instrumentuarekin lehen melodia asmatu zuten. Hamalarekin trikitixari heldu zion, eta lau urteetan, hainbat txapelketa irabazi zituen. Lehiaketan fasea itxitakoa ekin zion diskoan sartu dituen abestiak konposatzeari.

### **Hilabete ere ez da pasa ‘Sutan dantzan’ diskoa argitaratu zenuenetik. Zer moduzko harrera ari da izaten?**

Jendeak ondo hartu duela esango nuke. Gaur egun disko gutxi saltzen direla kontuan hartuz, Durangon dezentte erosi zizkidaten. Interneten argitaratu nuen lehen singleak, berriz, ia 100.000 entzunaldi izan ditu. Zifra polita da.

### **Bost egun eman zenituen Durangoko Azokan. Esperientzia ona izan al zen?**

Hasieran beldur pixka bat izan arren, eroso egon nintzen, gustura. Uste baino jende gehiagok zuen nire diskoaren berri; trikitixa txapelketetatik ezagutuko zuten askok nire izena, ziurrenik. Batzuek *youtuben* jarri izan ditudan bideoetatik ere ezagutzen ninduten lehenagotik. Jendearekin interakzio dezente izan nuen Durangon, eta esperientzia benetan positiboa izan da.

### **Diskoan trikitixa jotzeaz gain abestu ere egiten duzu.**

Parte hartu nuen azken lehiaketetan kantatu nuen lehen aldiz jendaurrean. Ordutik, ahotsa trebatzen saiatzen

ari naiz, nire proiektuko abeslari nagusia ni naizelako. Hau berria da niretzat, baina ilusio ikaragarria egiten dit aurrean dudan erronkak.

### **Diskoko kantu guztiak zuk konposatu dituzu. Zer dago melodia horien atzean?**

Barru-barrutik sortutako abestiak dira; abesti bakoitzak nire bizitzako fase edo gertaeraren bat ekartzen dit gogora. Niretzat, melodia bakoitzak istorio bat kontatzen du.

### **Letra gehienak, berriz, beste lagun batzuek sortuak dira.**

Kantu bakarreko letra da nirea, gainontzeakoak Eneritz Aulestiak, Unai Mendizabalek eta Felix Zubiak egin dituzte. Nik muskarizat dut nire burua, eta idazten ez naiz trebea; nahiago dut hori besteen esku utzi.

### **Diskoak zure estudioan grabatu zenuten, eta zu aritu zinen teknikari lanetan ere.**

Azken urteetako ikasketa akademikoak arlo horretara bideratu ditut, eta gustatzen zait musikaren esparru tekniko hori ere; musikari hobea izaten laguntzen dit.

### **Zuzenekoak ematen hasteko asmorik ba al duzu?**

Bai, hilabete gutxi barru jo nahiko nuke lehena. Bost muskariko taldea izango dut lagun, eta publikoa eserita irudikatzen dut. Aretoetan eman nahi ditut kontzertuak, entzuleek kantuak giro intimoan jaso ditzaten.





# “Abestiak sortzen ari naizen arren, ez dut diskoa ateratzeko presarik”

## Intza Unanue

Musikaria

Intzak ‘Karan’ abestia argitaratu zuen Interneten abuztu amaieran, jendaurrean aurkeztu duen lehena. Beste bospasei abesti sortuta dituela aitortu digu, baina epe laburrean behintzat, ez du lehen diskoa grabatzeko asmorik.

Intzak txiki-txikitatik abestu izan du. Umetan etxeko ispilu aurrean kantatzen jarduten zen, ondo gogoan du hori. Beste artisten abestiak kantatzen eskarmentua hartu ondoren, bereak konposatzen dihardu gaur egun.

### Noiz konposatu zenuen zure lehen kantua?

Iaz. Umetatik kantatu izan dut, baina instrumenturik jo gabe. Duela urte pare bat-edo, ukelelearekin akordeak jotzen ikasi behar nuela erabaki nuen. Horretan ari nintzela, akorde sorta batekin jolasean, paper artean idatzita nuen letra bat musikatzen saiatu nintzen, eta ohartzerako doinu bat nuen ezpainetan. Hasieran, ez nuen sinistu ere egin nirea zenik; lagunei bidali nien, beste musikariren bati entzuna ote zioten jakiteko. Ezezkoa eman zidaten kar kar kar. Nik asmatua zen, lehenengoa!

### Beraz, konposatzen baino lehenago idazten jardundakoa zara.

Bai, baina beti ezkutuan! kar kar kar. Niretzat, abesti batean letrak doinuak adinako garrantzia du.

### ‘Karan’ abestiaz gain, gehiago ba al dituzu eginda?

Bai, joan naiz beste batzuk sortzen. Bospasei badituzt ia bukatuta.

### Eta diskoren bat grabatzeko asmorik bai?

Oraingoz ez diot nire buruari presiorik jarri nahi, ez dut

presarik. Epe ertain-luzera diskoa grabatzea gustatuko litzaidake, baina horretarako, kantu bilduma trinkoagoa osatu nahi dut.

### Sorkuntza prozesuan, gozatu edo sufritu egiten duzu gehiago?

Egunaren arabera. Batzuetan gauzak aise ateratzen dira, modu jarrai eta atseginean. Beste batzuetan, aldiz, ezinezkoa izaten da ideiak nahi bezala jostea, eta sufritu ere egin izan dut; inoiz kanta pikutara botatzeko gogoia izateraino.

### Zure abestiak sortzen iaz hasi arren, urte asko daramatzazu musikari lotuta.

Kontzientzia dudanetik izan dut harremana musikarekin, oso umetatik kantatu izan dut. Gero, ikastolan, Olaxka eta Uhats abesbatzetako partaide izan nintzen, Olatz Zugastiren gidaritzapean. Hamalau urte nitueanean, Benito Lertxundiren taldean sartzeko aukera sortu zitzaidan. Koruak egiten aritzen naiz, Olatzekin batera.

### Zer asmo dituzu etorkizunera begira?

Kantuei beste dimentsio bat eman nahiko nieke, beste musikariek lagunduta. Taldearekin kontzertuak ematea ere gustatuko litzaidake. Musikak bizipoza ematen dit; etorkizunean, asteburuetan kontzertuak jotzeko ilusioarekin bizi nahiko nuke.




# “Disko berrian biluztu egin naiz emozionalki”

## Ibai Marin

Musikaria

Urte askoan Hira heavy talde ezaguneko abeslari izan ostean, Ibai Marinek bere izenarekin sinatutako lehen diskoa atera berri du: ‘Bidean naiz’.



Ibai Marin donostiarra da jaiotzez eta urteak daramatza musika munduan murgilduta: Hira heavy taldearekin bost disko argitaratu zituen, eta oihartzun dezente lortu zuten Euskal Herrian. Taldeak martxa geratu zuenean ekin zion ‘Bidean naiz’ diskoko kantuak konposatzeari; duela bi urte izan zen hori, Orion bizitzen jarri zen garai beretsuan.

### ‘Bidean naiz’. Nondik eta nora?

Musikarekin dudak konpromisoa adierazi nahi izan dut tituluarekin; konstantzia bat mantendu dut musikarekin, urte asko dira dagoeneko lanean, sortzen. Ez dut sekula alboan laga; Hira taldearekin geratu ostean, bidean jarraitu dut, abestiak egiten.

Musika pasioa da niretzat, eta egunerokoan behar dut; atzo bertan, etxean abesti berri baten zatitxoa sortu nuen, bi esaldi labur. Ikaragarri gozatu nuen momentu txo hori, eta nire buruari berretsi nion beste behin: *bai, hau da egin nahi dudana, barruak musika sortzea eskatzen dit.*

### Zein da disko berriaren atzean dagoen bulkada?

Hira taldeko kantuak nik sortzen nituen, eta muinean, disko berriko abestiek inpulstu bera dute; betidanik, nire emozioetatik abiatuz sortu izan ditut abestiak, eta letretan, gai intimistak jorratzen saiatzen naiz. Halaxe izan da oraingo honetan ere.

### Aitari eskaini diozu diskoa.

Sentimenduei dagokionez, etxeko armairua zabaldu dudala baieztatu dezaket, biluztu egin naiz. Aitak duela urtebete utzi gintuen, eta harentzat da abesti bilduma. Kantu batek, zehazki, bera du hizpide: *El gran golpeador*. Boxealaria izan zen gaztetan, eta omendu egin nahi izan dut.

### Letrak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi dituzu.

Aitak presentzia handia izan du niretzat diskoaren sorruntza prozesuan, eta zuzenekoetan hari kantatu nahi diot, gertu sentitu nahi dut. Aita ez zen Euskal Herrian jaioa, eta berarekin gaztelaniaz hitz egiten nuen; horregatik egin dut letrak bi hizkuntzetan idazteko hautua.

### Folk-rock estilokoak dira abestiko kantu gehienak, baina ahotsean, heavy kutsuari eusten diozu.

Ahotsa izan da betidanik nire instrumentu eta bereizgarri nagusia. Oraingo musika Hira-rekin egiten genuena baino lasaia izan arren, ahotsaren tinbrea mantendu egin nahi izan dut. Hori da nire zigitua.

### Bidelagun dituzun musikari batzuk oriotarrak dira, ezta?

Libana Taboadak, nire bikotekideak, koruak egiten ditu, eta bere anaia Jurgik kitarra jotzen du taldean; erdi oriotarrak dira biak kar kar kar. Bada beste oriotar bat ere, Aritz Pardina, taldeko kitarra jole nagusia.



# 'Musu-truk'



Xabier Etxeberria

**Durangoko azokan hiru mutil koskor gerturatu zitzaizkigun. Ez zuten sinadurarik eskatzen, beste zerbait baizik: "Hemen zer ematen duzue debalde?"**

**D**urangoko Azokara pare bat egunean azaldu naiz aurtan. Irakurleengana hurbiltzeko bezainbeste, lagun ditudan beste zenbait idazleekin berriz elkartu eta elkarren berri izateko aukera ona izaten da.

Haietako batekin argialetxearen *stand*-ean hizketan ari nintzela, hiru mutil koskor gerturatu zitzaizkigun. Ez zuten sinadurarik eskatzen, beste zerbait baizik:

-Hemen zer ematen duzue debalde?

Paperezko poltsa dotore bat zeramaten, argialetxe handi baten logoa zeukana, eta barruan han eta hemen bildutako *merchandisinga* —egutegitxoak, katalogoak, esku-orriak— jasota. Musuak baino ez genituela doan —musu-truk— erantzun genien guk sinpatikoarena egin nahian, baina ez zien graziarik egin ateraldiak eta kopeta zimurtuta aldendu ziren alboko standera.

Ezinbestean, haur haien bisitak euskal kulturari buruzko hizpidea sortu zigun. Gure egoera, gure ajeak, gure kristalezko sabaia. Zenbatetan eskatzen den, hain zuzen ere, kantaldi bat, bertso-saio bat, ipuin bat debalde ematea.

Eta hala ere, urte asko ez dela, gogoratu genuen, zenbaitzuk euskal kulturaren komertzializazioaren aurka

papertxoak banatzen aritu ziren Azokan bertan. Hasperen bat eta galdera asko:

-Euskal sortzaileak zertaz bizi garela uste du jendeak?

-Euskaraz idaztetik/abestetik dirutza irabazten dugula pentsatzen ote dute benetan?

-11 egunez ahalegintxo egin eta Euskaraldiaren txapa eraman duten guzti horietatik, adibidez, zenbatek irakurtzen du liburu/egunkari bat euskaraz?

Kontua, bere gordinen esanda, hauxe da: erdal kulturaren komertzializazioak berdin digu, nahiz eta huraxe den ia %100ean kontsumitzen duguna. Euskal kulturak, ordea, purua izaten jarraitu behar du, biraorik —eta sosisik— gabeko hizkuntza garbia.

Euskarazko kulturak, noizbait benetan normalizatu egotekotan, Goazen bezalako tele-zaborrak —barkatuko didate alabek— arte maila goreneko harribitxiak bezainbeste —edo gehiago— behar ditu. Komertziala den zerbait eskaini behar dugu, horretan dihardugu, hori egiten saiatzen gara.

Sortzaileen eskaintza-ahalegina alferrikakoa da ordea, parean euskaraz kontsumitzeko prest dagoen irakurle/entzule/ikuslerik ez badago.

 <b>Zarautz</b> Hileta Zerbitzuak	> Hilerrien kudeaketa > Hileta zerbitzu orokorrak > Zerbitzu iraunkorra	 <b>Harrespil</b> Hilerri Zerbitzuak	
Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net			



# KABALGATARA KO ENTSAIOAK

## LEHEN ENTSAIOA

Abenduak 26. 12:30. Ikastolako pergolan

## HURRENKO ENTSAIOAK

Abenduak 27 • 12:30 • Ikastolako pergolan

Abenduak 28 • 12:30 • Ikastolako pergolan

Urtarrilak 2 • 19:00 • Ikastolako pergolan

Urtarrilak 3 • 19:00 • Ikastolako pergolan

Urtarrilak 4 • 12:30 • Ikastolako pergolan

## OHARRAK

- 1- Kabalgatan parte hartuko duten haurrek etorri beharra daukate entsaioetara.
- 2- Kabalgata egunean haurrek baseritar jantzita etorri behar dute.



Goazen Orioko eta Aiako errezeta liburua idaztera. Lagunarteko otorduak; paper muturrean gordetako osagaiak eta kopuruak; etxeko jan ohiturak; baratza, errioa eta itsasoa; jateetako sukaldeak... Mahai bueltan gauza asko egin daitezke, interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Ahal dela, ez egin biak batera.

## KARKARAko sukaldetik etxekora

### Ana G. de Txabarri Exposito Prosciutto pizza

#### Osagaiak

- Ogi-irina 200 g
- Gatza
- Ura 100 ml
- Legamia (ogia egitekoa)
- York urdaiazpikoa
- Hirugiharra
- Xehetutako tomate naturala, lata txiki bat
- Oreganoa
- Mozzarella 200 g
- Goilaraka bat olio
- Margarina

#### I. GAITON

**D**atorren ekainean KARKARAK 30 urte beteko dituela aitzakia hartuta, aldizkariko sukaldetan makina ordu egin dituen herritarra gonbidatu dugu mahai bueltan juntatzera: Ana Gonzalez de Txabarri.

Lehen KARKARA haietan, ordenagailurik ez, eta eskuz egiten zen dena, sukaldetan pizza bezala; beraz, aldizkariko zenbaki bakoitza argitaratze hutsa lorpen handia zen, *ospatu beharreko zerbait!*, Anaren hitzetan. Orduan argazkiak ere analogikoak ziren, eta ez digitalak, karreteekin ibiltzen ziren. Bera zen garaiko argazkilari ofiziala. Lan handia zen. Argazkiak ateratzeaz gain, karreteak etxean errebelatzen eta positibatzen nituen, horretarako egokituta neukan gela batean. Eta bukatzeko, argazkiak banan-banan ordenagailura pasa behar izaten ziren, eskannerre erabiliz, aldizkariko maketan sartzeko, gogoratu du.

KARKARAko artxibo zaharreko negatiboak Anak errebelatutakoak dira, eta argazki asko ere berak eginak. Egunen batean, gustatuko litzaioke txukundu eta antolatzea: *Jubilatzen naizenean, artxiboa berrikusi eta ordenatu nahi nuke, argazki horiek jendearentzat eskura uzteko; ikusiko dugu zein den horretarako euskarririk egokiena. Argazki horiek aldizkarirako egin ziren, baina KARKARA*

*guztiona da, eta gustatuko litzaidake fotoak oriotarrei eta aiarrei ikusteko eta edukitzeko jartzea.*

#### Prosciutto pizza

Lagun pisukide batekin ikasi zuen pizzak egiten Anak, ogi eta guzti. Ordutik, pizzaren ogia berak egin izan du, *ilobek edo lagunaren seme-alabek lagunduta! Umeez ikaragarri gozatzen dute eskuekin orea egiten. Soziedadean algara ederrak egin izan ditugu eskuak ogi-irinetan sartuta ditugula, oso dibertigarria izaten da kar kar kar... Eta emaitza, noski, goxo-goxoa!*, dio barrez.

#### Errezeta

Aurrena orea egin behar da, masa. Horretarako, tontortxo bat egun behar da ogi-irinarekin mahaian edo sukaldetako marmolean, eta ondoan 100 ml ur epel eduki edalontzi batean. Urari goilarakada olio, legamia eta gatza bota bota behar zaio, eta ondo nahastu urtu arte.

Gero, ogi-irin tontorrari zulotxoa egin behar zaio, eta ura botatzen joan poliki, eskuekin bildu bitartean, masa egiten den arte. Komeni da eskura ogi-irin pixka bat izatea, orea itsasten bada askatzeko.

Orea egina dagoenean —hau da, eskuetan itsasten ez





“KARKARAko argazki artxibo zaharra antolatu nahiko nuke, fotoak jendearentzat eskura uzteko”

“Umeeek ikaragarri gozaten dute pizzaren oreka eskuekin egiten”

denean— eskuekin borobil bat egin eta zapitxo batean bilduta, lasai-lasai estutu gabe laga behar da hogeituz hamarretarako. Behin masa hazi denean, mahai gainean ogi-irina pixka bat bota eta borobila han gainean jarri; segidan, arrabolarekin zapaldu eta zabaldu, pizza itxura emateko.

Segidan, labean erabiliko den moldean edo erretiluan margarina zabaldu behar da, eta oreka han jarri. Masari ere margarina eman behar zaio gainaldean, iragangaitza izan eta ogiak testura egokia har dezan. Garrantzitsua da hori, bestela beratu egin delako ogia eta grazia galdu piztak. Gero, ogiaren ertzak bildu, hesitxo baten itxura emanez.

Gainontzeko osagaiak jarri behar dira, orduan, gainean. Aurrena, tomatea zabaldu koilara batekin gainazal guztian, geruza bat, eta gero mozzarella zatiak jarri. Gainean york urdaiazpikoa eta hirugihar zatiak, zatituta. Bukatzeko, parmesano gazta pixka bat eta oreganoa. Dena prest izandakoan, aurretik ondo berotutako labera zuzenean. Han hogeituz edukitu, eta ertzak kolore polita dutenean, mahaira.



ARGAZKI ERREPORTAJEA



20 KARKARA



## 2018ko sanikolasak: herritik herriarentzat

Guztion begietara mundua txikitzen doan heinean, herritarrek herriko festekiko duten lotura ere aldatzen doa. Gaur egun, esku-eskura geratzen zaizkigu milaka lagun erakartzen dituzten kontzertu erraldoiak, era guztietako ikuskizunak edota aurpegi ezberdinetako festak. Baina herrikoek, herriko izaten jarraitzen dute. Horren adibide, oritarrok sanikolasetan. Aurtengoan, beste behin, bizilagun askok etxean igaro dituzte zubi-ko oporraldiak, bertako jaiez familia eta lagun giroan gozatzeko. Esan ohi den bezala, askotan, etxean baino hobeto, inon ere ez.

# Orioko pirata hiltzailea

**Historia harrigarria** dakarkizugu oraingo honetan irakurle, Zinemaldiko pelikula bat egiteko modukoa, baina gure herrian bertan gertatua, hezur-haragizko pertsonekin, aspaldi, oso aspaldi. **1476 inguruan** gertatu zen, **Orioko eta Asteasuko bi pirata, orduko alkate eta herriko kartzela zainarren artean.**

TESTUA: RIKARDO UZKUDUN

ILUSTRAZIOA: ELENE TAMAYO

**E**TB 2-ko *Una historia de Vasconia* programak bigarren denboraldian eman dituen kapituluaren artean *Historia de corsarios vascos* atalak piztu zuen idazten duenaren arreta. Hariari tiraka, interneten eginiko zokomiran, Iñaki Bazán historialariak egindako lan batekin topo egin zuen, Donostiako Untzi Museoak Itsas Memoria izeneko aldizkariaren 5. zenbakian argitaratu zuena. *Degollaron a todos los dichos treynta e tres yngleses e asy degollados dis que los lançaron en la mar* batekin hasten da artikulua.

## Kortsarioak euskal kostaldean

Behe Erdi Aroan pirateria edo itsaslapurreta nola jazarzen zen ikertu zuen Bazánek bere lanean, eta hor kokatu beharra dago historia, zehazki, garai hartan agintzen zuten Euskal Ermandadeek itsas auzietan neurriak hartzeko zuten eskumenetan.

Jakina da, kortsarioek euskal kostaldean izan zuten protagonismoa garai hartan, Donostiako portuan bereziki. Urte korapilatsuak izan ziren Atlantikoko itsasoan, gerra ugari izaten ziren Castilla, Ingalaterra eta Frantziaren artean. Gerra garaietan Gaztelako koroak emandako baimenei esker, hegoaldeko kortsarioek etsaien merkantzia-ontziei eraso egin zieziaieketen eta merkantzia eskuratu. Gerra sasoi bat bukatu eta bake itunak sinatzen zirenean barkatutzat jotzen ziren ordu arteko kortsarioen lapurreta guztiak.

## Ingelesak lotan zirela

1476an gertatu zen, Gaztela eta Leongo eta Ingalaterrako erregetzen artean *pas y amystad* nagusi zen sasoi hartan. Bost marinela euskaldun itsasontzi ingeles batean itsasoratu ziren, tartean, Mitxel de Likona oriotarra Barkua Euskal Herriatik pasatzekoa omen zen, eta marinela ingelesek onartu egin zituzten euskaldunak.

Badirudi Portsmouhten izan zela hori. Frantzia eta In-

galaterra bereizten dituen Mantxako kanala igarotzen ari zirela, ekaitz ikaragarria lehertu omen zen. Marinela ingelesek bi egun eman zituzten haren kontrako borrokan. Baretu zenean, marinela akituta erori ziren kubiertaren gainean. Bidaiari euskaldunek aukera baliatu zuten ingelesei, banan-banan, lepoa-edo mozteko. Ondoren, kareletik behera itsasora bota zituzten haien gorpuak. Badirudi biharamunean-edo Britainiako kostaldeko hondartzetan agertu zirela gorpuak, hango korronteak hara eramanda.

Marinela euskaldunak aurrera segi eta itsasontzia Galizian lehorreratu zuten, hango portu batean. Han, barkuko merkantziak saldu zituzten: oihalak eta bitxiak. Gero, Euskal Herrira itzuli ziren. Bazánek dioenez, gezurra badirudi ere, horrelako gertakari lazgarriak ez ziren bakanak izaten. Beste zenbaitetan, gipuzkoarrak izaten ziren biktimak eta ingelesak borrokoak.

Nola edo hala, Mitxel herrira itzuli zen, Oriora. Hemen bizimodu normala egiten saiatu zen. Berehala ordea, Gaztelako koroak Ingalaterran zuen enbaxadorearen bitartez —Sasiola gipuzkoarra hura ere—, Errege Katolikoek hilketaren berri izan zuten. Hauek, Pascual de Mygallez de Arrecheari, Gipuzkoako ermandadeko Getaria-ko barrutiko alkateari, agindua eman zioten errudunak atxilotzeko.

## Mitxel de Likona, ihesean

